

# Goretti Francisco Vega

**E** maila • 2 aipamena

Kaixo, ni Goretti Francisco Vega nauzue, 10 - 11 urteko neska beasaindarra. Murumendi Ikastetxean egiten ditut ikasketak eta 5. mailan nago. Nire zaletasunen artean, musika, biolina, saskibaloia, irakurtzea, idaztea eta maite ditudan pertsonekin denbora pasatzea daude. Nire ipuina gustokoa izatea espero dut. Aipamen hau nire familia eta lagunei eskeintzen diet.



## EGIN IRRIBARRE KOSTATU ARREN

Eguneroko maitea:

Kaixo berriro, gaur nire institutuko lehenengo eguna izan da. Ez da oso ondo joan, ez da aurreko urteetan bezalako lehen eguna izan. Sarreran tenperatura, gela, musukoa, tartea...

Institutura sartzerakoan gure maisu berria aurkeztu digute, egia esan ez zait oso jatorra iruditu, baina batek daki, batzuetan ez da asmatzen.

Nafarroako herri txiki batetik dator, bere burua aurkeztu ondoren, matematikako klasea izan dugu, beti gustatu izan zait ariketa matematikoak egitea, bueno beste irakasgaiak ere gogoko ditut orokorrean.

Gustura ari nintzen ariketekin buru belarri, baina ematen du ezin zaidala ezer gustatu, ezin naizela pozik egon...Nola janzten naizen, zer egiten dudan, gustoko ditudan gauzak edo nire gorputza nolakoa den beti kritikatzan dute.

Egia esanda, mina ematen dit baina denbora asko pasa da kritikatzan hasi zirenetik.

Orain lau urte hasi zen dena, patioan ume-moko talde bat beti jartzen zen nire inguruan eta nik ez nekien zer egin orain bezala. Jada 16 urte ditut eta oraindik ez naiz ausartzen beraiei aurre egiten, baina ez ni bakarrik. Nola kritikatzan edo jotzen nauten ikusten duten pertsona guztiek filme bat dela pentsatzen dute.

Eskerrak gaur patioaz libratu naizen, medikura joan naiz, talde honetako kideek egin dizkidaten zauriak ikus ditzaten. Uste dute normalean eskaileretatik edo beste leku batetik erori naizela eta bai, hori da haiei kontatzen dieten istorioa ez daitezen kezkatu.

Nerea 2021/09/07

Barkatu, ez dut nire burua aurkeztu, Nerea naiz eta nire egunerokoan kontatu dudan istorioa nire bizitza da. Ez! Zortzi eta erdiak dira jada eta etxera joan beharra daukat.

Egunerokoan idazten ari nintzela, Kontxa hondartzaren itsasoko olatuak begiratuz eta haien zarata entzunaz entretenitu naiz! Etxera bueltatu beharra daukat.

## PROSA

Horrelaxe joan zen Nerea hondartzatik, bere motxila hartuta eta zerbait ahaztuta, hondarretan bere egunerokoa gelditu zen.

Egunerokoarengana mutil ile hori bat hurbildu zen, kuriositatez begiratzen ari zen Nerearen koadernora, azkenean hartu eta bere toailara bueltatu zen. Mutila irakurtzen aritu zen denbora luze batez.

Mutil ile horiari, ideia bat bururatu zitzaion Nereak bizi zuen egoera irakurri ondoren.

Horretarako, bere motxilatik orri txuri bat hartu eta hau idatzi zuen: Kaixo Nerea, horrelaxe da, nik hartu nizun zure egunerokoa hondartzan utzi zenuenean eta egia esanda, irakurri egin nuen. Aholku bat emango dizut: jarri ume-moko horien aurrean eta zure burua defendatu, zu zaren modukoa zara eta besteen iritziek ezin zaituzte aldatu, janzteko modua, zure gorputza edo zure gustuko gauzak, hori dena zurea da, ez da beste inorena, libre zara nahi duzuna egiteko beste norbaiti eragiten ez dion bitartean eta haur talde batek ez dizu ezer egitea eragotziko”.

Hurrengo egunean 7:40etan mutil horrek pentsatu zuen bezala, Nerea hondartzara bueltatu zen bere egunerokoa berreskuratzen.

Nereak inguru guztian bilatu zuen eta azkenean toaila batekin bilduta aurkitu zuen.

Egunerokoa hor aurkitu zuen mutikoa, klasea bukatu ondoren, patiora joan zen bere sagar gorria janez. Ez zen harritu ohiko taldea ikusterakoan, denak Nerearen alboan jarri ziren, berriro berarekin sartuz.

Baina ikusi zuena ez zen ohiko egoera izan, baizik eta oso bestelakoa. Bat-batean aurre egin zien Nereak ume-moko guztiei hondartzako mutikoak esandakoa eginaz.

Egun horretan denak harrিতuta gelditu ziren eta beste neska batzuei eraso egin behar zietenez Nerea hor zebilen denak defendatzen hara eta hona, ez ziezaien ezer egin, beraiek egin ez zuten bezala.

IZAN ZAITEZ ZU/ZEU ETA EZ UTZI INORI ZURE IZAERA ALDATZEN